
PRENTSA OHARRA

BILBAOARTEK ALAZNE ZUBIZARRETAREN 'EGGS ONNA PLATE' ERAKUSKETA INAUGURATUKO DU

Urazurrutia Aretoak apirilaren 30era arte izango ditu zabalik grabatu erakusketa honetako atearak

(Bilbon, 2021eko martxoaren 26an). BilbaoArte Fundazioak zentroan bekadun izandako Alazne Zubizarreta artista arrasatearraren "Eggs onna plate" erakusketa aurkeztuko du Urazurrutia Aretoan. Erakusketa honetan, artistak grabatua garaikidetasunetik lantzen du, eta astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:30era, bisitatu ahal izango da, doan, edukiera mugatuarekin.

Datozen asteetan, Udalaren egoitza artistikoak artistak azken urtean akuafortearekin eta aguaintarekin egin dituen grabatuak hartuko ditu. Bere lanek eskuzko lana eta bitarteko digital berriak tartekatzen dituzte, non formatuak tinta beltzez formatu txikiko paperen gainean grabatutakoetatik hasi eta ehuneko pieza zabaletan inprimatutako kolore orotako diseinuetaraino doazen.

"Eggs onna plate" erakusketan aurkituko ditugun obra gehienak BilbaoArte Fundazioan egoiliar izan zen bitartean garatutakoak dira. Bekadun gisa, ordu asko eman zituen zentroko grafika-tailerrean, eta bertan, estudioa edukitzeari esker, praktikarako aukera berriak aztertu ahal izan zituen. Azken hilabeteetan, ekoizpen horrekin jarraitu du, irudi horiek aitzakiatzat hartuta beste berri batzuk eraikitzeke: digitalak, koloretakoak, formatu handiagokoak edo oihalezkoak.

Bere ibilbidearen garapenean, *La Taller* espaziotik igarotzea nabarmendu behar da, Alazne Zubizarretak berarentzat grabatua eta marrazkia zena desmitifikatzen hasi baitzen, bere lanetan umorezko elementuak sartuz eta komikien eta makar estetikaren eragina zuten beste abstrakzio mota batzuekin nahastuz.

Erakusketarekin batera doan katalogoak, "Legs onna plate" izenekoa, Karlos Martinez B. artistaren "Nor dago hor?" izeneko sarrera bat eta Leire San Martinekin (Tabakalera) Zubizarretaren lanari buruzko elkarrizketa bat biltzen ditu. Bere orrien barruan, erakusketan dauden grabatuen irudiak ere aurkituko ditu irakurleak, baita bere lanak diseinatzean artistak duen iruditeria irudikatzen duten orriak ere.

ARTISTARI BURUZ

Alazne Zubizarreta (Arrasate, 1994) Bilbon bizi eta lan egiten du. Arte gradua egin ondoren, diseinu grafikoko master bat egin zuen. Grabatuari buruzko ezagutzak garatzen ditu hainbat eskolatan, hala nola La Taller eta CIEC fundazioan. Hainbat erakusketatan parte hartu du, hala nola *Itzuli Barik* kolektiboan *Harriak* programaren barruan, *EZa* Okela Sormen Lantegian, *Sueño Aire* Galerian edo Gipuzkoako Artista Berrien programan.

Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

BILBAOARTE INAUGURA 'EGGS ONNA PLATE' DE ALAZNE ZUBIZARRETA

La Sala Urazurrutia tendrá abiertas las puertas de esta muestra de grabado hasta el 30 de abril

(Bilbao, 26 de marzo de 2021). La Fundación BilbaoArte presenta en la Sala Urazurrutia la exposición «*Eggs onna plate*» de la artista mondragonesa Alazne Zubizarreta, becada en el centro durante 2020. Esta muestra, en la que la artista aborda el grabado desde la contemporaneidad, podrá visitarse de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 hasta el 30 de abril, con entrada gratuita bajo aforo limitado.

Durante las próximas semanas la sede artística del Ayuntamiento acoge una serie de grabados que la artista ha realizado con aguafuerte y aguatinta durante el último año. Sus obras alternan el trabajo manual con los nuevos medios digitales, en donde los formatos van desde los grabados con tinta negra sobre papeles de pequeño formato, hasta los diseños a todo color impresos en espaciosas piezas textiles.

La mayor parte de las obras que encontraremos en la exposición «*Eggs onna plate*» son las desarrolladas durante su residencia en la Fundación BilbaoArte. Como artista becada, pasó muchas horas en el taller de gráfica del centro donde, gracias a tener un estudio propio, pudo explorar nuevas posibilidades para su práctica. A lo largo de los últimos meses ha continuado con esta producción tomando estas imágenes resultantes como excusa para construir otras nuevas: digitales, a color, de formatos más grandes o en telas.

En el desarrollo de su trayectoria cabe destacar su paso por el espacio La Taller, el cual propició que Alazne Zubizarreta comenzara a desmitificar lo que eran para ella el grabado y el dibujo, permitiéndose introducir en sus obras elementos humorísticos y mezclarlos con otro tipo de abstracciones, influida por los cómics y la estética macarra.

El catálogo que acompaña la muestra, titulado «*Legs onna plate*», recoge una introducción titulada «*¿Quién está ahí?*» del artista Karlos Martínez B., y una conversación con Leire San Martín (Tabakalera) sobre el trabajo de Zubizarreta. Dentro de sus páginas el lector encontrará también imágenes de los grabados presentes en la muestra, además de unas páginas que ilustran el imaginario que acompaña a la artista al diseñar sus trabajos.

SOBRE LA ARTISTA

Alazne Zubizarreta (Arrasate, 1994) vive y trabaja en Bilbao. Tras hacer el grado en Arte, cursó un master de diseño gráfico. Desarrolla conocimientos de grabado en diferentes escuelas, como La Taller y la Fundación CIEC. Ha participado en varias exposiciones, como la colectiva *Itzuli Barik* dentro del programa *Harriak*, *EZa* en Okela Sormen Lantegia, *Sueño* en Aire galería o el programa de Artistas Noveles de Guipúzcoa.

Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus